

Soinu-objektua espazioaren memoriaren lekuko

Laburpena

Soinu-batsortu edo entzuten duen edozein pertsonak interpretatu, konfiguratu, zehaztu egiten du, eta interpretazio horrek norbanakoaren informazioa, erreferentzia sinbolikoak eta kode kolektiboak barneratzen ditu, finean, bizitako egituratzen dutenak. Iraganaren berrinterpretazioa egituraketa horrek antolatzen du.

Gako-hitzak: soinu-objektua, memoria, soinu-paisaia

Abstract

Every person who creates or listens to a sound, interprets, configures and specifies it and, this interpretation internalizes the information, symbolic references and collective codes of the individual, the ones that structure the lived experience. This structuration organizes the reinterpretation of the past.

Keywords: sound-object, memory, soundscape



Zigor Iturbe

Arkitektoa, EHUko irakaslea, musikaria

Bidaltze data: 2019-03-29

Onartze data: 2019-05-10



«Entzun! Espazio orok instrumentu handi bat bezala funtzionatzen du; soinuak nahasten ditu, amplifikatzen ditu, leku guztietara transmititzen ditu. Osatzen duten materialen azalera eta formarekin eta horiek gauzatu diren moduarekin du zerikusia. Adibidez: har ezazue izei-ohol zoragarria eta jar ezazue, biolin bateko tapa bezala, zuen egongelako lurraren gainean. Beste irudi bat: itsatsi ezazue hormigoizko forjatu baten gainean! Soinu-desberdintasuna nabaritzen duzue? Bai, noski. Zoritxarrez, gaur egun jende askok ez du batere hautematen espazioaren soinua. Bai, espazioaren soinua; pertsonalki, neurre burura datorren lehena zaratak dira, nire amaren zaratak ni haurra nintzenean bera sukaldean ontzietan aurrera eta atzera. Zoriontsu egiten ninduten. Egongelan egon nintekeen, baina beti nekien nire ama etxean zegoela zartagina eta gainerako tresnak entzuten nituelako» (Zumthor, P. 2006: 28-32).

Bizitako espazioa osatzen duten atmosferen hitz egitean, soinuak bizipen hori gogora ekartzeko duen gaitasunaz hitz egiten du Peter Zumthor arkitektoak, esaterako. Baina nola artikulatzen da memoriaren mekanismoa zerebroan? Dirudenez, memoria hipokanpoan gertatzen den neuronon lehen elkartzeko hasten da. Neuronen sinapsi horiek denbora laburrez irauten dute hor, eta, denbora bat igaro ondoren, aurreko lobulura pasatzen dira. Horrela, oroitzapenak hipokanpoan sortzen dira eta aurreko lobuluan gordetzen dira berreskuratuak diren arte (Mendiburu, 2000).

Oroitzapen bat, memoria, gauza askoren artean irudi baten, gertakizun baten, esaldi baten edo soinu baten estimulu baten bitartez aktibatua izan daiteke, eragiten dioten subjektuen

menpe egongo delarik. Memoriak erabilitako mekanismoan, guztiz galdu ez dadin, nahikoa litzateke oroitzapenaren zirkuitu neuronala osatzen duten neurona guztien artean neurona bakar baten estimulua aktibatzea.

Memoria osatzen duten elementuen konglomeratua egunero artikulatu eta berregituratzen da, eta egindako azken antolaketa gogoratzen dugu. Prozesu hori egunero apurka-apurka gertatzen den eboluzio batean gertatzen da, eta sakonera handienarekin errotutako oroitzapenei ere eragiten die. Jean Roch Laurence-k Concordia Unibertsitatean aurrera eramandako ikerketen arabera, gertaera garrantzitsuenak xehetasun askorekin gogoratzen ditu garunak, txikikeriak ahaztu egiten diren bitartean. Oroitzapenak bizitzan zehar garatzen diren egitura aldakorrek dira, garunak xehetasun txikien jatorria ahazten duelako eta, horrela, ahaztutakoa irakurritako edo entzundako gertakizunek ordezkatzeko dute norbanakoak egindako interpretazio propioan oinarrituta (Mendiburu, 2000)

Memoriak norbanako bakoitzari eskainitako oroitzapenak kontakizun baten eraikuntzarekin du zerikusi gehiago gertakarien egia aldaezin batekin baino. Iraganaren berrinterpretazio bat da gehiago datu enpirikoen eramailea den egia baten berreskuratzea baino. Jokabide horrek pentsamoldean zuzenean eragiten du eta, ondorioz, harremanetan eragiteko moduan. «Gure zentzumenek ingurugirotik hautemandako estimuluak modu pasiboan jasotzen ez ditugula onartzen badugu, gure memoriak ez duela eratuko kanpoaldeko munduaren erreplika zehatzik,

eta, beraz, gure ingurunea eta biziraupena ulertzeko moduan oinarritutako berrinterpretazio bat izango dela» adierazten du New York hiriko D. L. Shacter psikologoak. (Shacter, 1995). Leku baten memoria dagokion komunitatearen kulturaren eraikuntzan oinarritutako interpretazio bat dela, alegia.

Horrela, bizirik dirau arkitekturaren proiektu arkitektonikoan, urbanistikoan edo paisaiakoan leku baten espazioaren memoriari heltzearen dilemarekin erlazioatutako eztabaidak. Espazio bat bere materialtasunari dagokionez eraberritzeak garai bateko errepikapen teknologikoari erantzun diezaioke. Bestalde, espazioa bere sinboloen bitartez eraberritzean, dagokion lekuaren eraikuntza kulturalari so egitea eskatzen duela dirudi. Espazioaren memoria osatzeko ezinbestean dagokion komunitateak egindako eraikuntza kultural horretan, soinu-gertakizunak jokatzeko duen papera azter dezakegu horrela. Soinu bat sortu edo entzuten duen edozein pertsona interpretatu, konfiguratu, zehaztu egiten du eta, interpretazio horrek norbanakoaren informazioa, erreferentzia sinbolikoak eta kode kolektiboak barneratzen ditu, finean, bizitakoak egituratzen dutenak. (Augoyard, 1985)

Soinu-gertakizun baten bitartez, norbere soinuaren, bizitako soinuaren eta irudikatutako soinuaren arteko ezberdintasunak egituratzen ditugu. Norberarena den soina, propioa dena, gure fisiologia eta anatomia fisikoki karakterizatutakoa da eta den bezalakoa irudikatzen dugu, zehaztasunez. Bizitako soinuak, berriz, norbanakoaren obserbazioen deformazioa eta interpretazioa dira. Irudikatutako soinuaren kode kolektiboak jasotzen dira eta iritzi eta usteek adierazitakoa azaleratzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaiaren Antolamenduaren 2014/90 DEKRETUAn ere definitzen den bezala, komunitate bakoitzak erabakitzen du zerk osatzen duen paisaia jakin bat eta hortik abiatuta definitzen da zer den paisaia hori eratzeko duena (fisikoa edo kulturala izan) eta, beraz, zein parametro identifikatu eta aztertu daitezkeen. Horregatik, soinuaren bizipenaren kasuan, ez dago analisirako metodologia bakarra, baizik eta egiteko jarraibide batzuk daude, aztertu beharreko egoera bakoitzari egokitzen zaizkionak.

Soinu-objektua

Bizitako espazio jakin baten memoria aztertzerakoan hura osatzen duen soinu-paisaiari erreparatu gero, ezinbestekoa da paisaia hori osatzen duten soinu-objektuen analisia egitea, azterketarako erabilitako metodologia edozein dela. Soinu-objektuaren ideia 1966. urtean Pierre Schaffer musikari (ingeniari mekanikoa formazioz) frantziarrak plazaratutako *Objektu musikalen tratatua* (Paris, 1966) lanaren ondorengotzat har daiteke. Beraz, esparru musikalean jatorria duenaren eratorpena bezala uler daiteke. Liburuan zehar soinuaren klasifikazio morfologiko eta tipologikoa aurkezten du autoreak ikuspegi naturalista batetik abiatuta, soinuaren pertzepzioaren lege orokorrak izan zitezkeenak ezartzeko asmoarekin, egituratze adierazkor ororen oinarritzko unitatea den objektu musikalaren ulermenaren bitartez (Schaffer, 1966)

Soinu-objektua denborazko objektua da, eta, klasifikatua izan badaiteke ere, bere izateak kontzientzian gertatzen den denboraren pertzepzioaren legeei erantzuten die. Horrela, soinu-objektua subjektuan eraikitzen bada, subjektua soinu-objektuari esker eraikitzen da (ez dago objekturik subjektu gabe eta alderantziz). Gogoak soinu bat entzuten duenean, horrek gizakiarekin duen harremana jasotzen duen bilatze-prozesu bat jartzen du abian soinu hori zein den ulertzeko, ondoren, kontzientzian identifikatzeko asmoarekin. Gogo horri forma ematen saiatzen da kontzientzian erlazioatu lezakeen (soinu) objektu mental bat bilatuz, eta Schafferrek hauteman zuen identifikazio-saio horretan soinuaren bertan zentratu baino areago, soinu hori eragiten duen iturri edo kausari erreparatzen zaiola. Soinuaren jatorrian zentratzen den soinu hori geure buruan birsortzearen asmoari «aditza» (gaztelarazko 'escuchar') deitzen dio autore frantsesak, definitzen dituen entzutearen lau moduen arteko bigarrena delarik hau. Lehena «entzutea» (gaztelarazko 'oir') litzateke eta gure belarrietan soinuaren materialaren presentzia izate sinpleari dagokio. Soinu horri esanahia eman nahi izatea «aditza» litzateke.

///

Bibliografia

- Zumthor, P. (2006): *Atmosferas*, Entornos Arquitectónicos, 28-32.
- Barrie, L. (2007): *Patrimonio, Oralidad Y Paisaje Sonoro*, I Encuentro Iberoamericano sobre Paisajes Sonoros.
- Shacter, D. (1995): *Memory Distortion: How Minds, Brains, and Societies Reconstruct the Past*.
- Augoyard, J.F. (1985): *La Production De L'Environnement Sonore. Analyse Des Conditions Sociologiques Et Sémantiques De La Production Des Phénomènes Sonores Par Les Habitants Et Usagers De L'Environnement Urbain*, CRESSON, Grenoble.
- Schaeffer, P. (1966): *Traité Des Objets Musicaux, Essai Interdisciplines* (Pierre Vives), Editions du Seuil, Paris.
- Mendiburu, J. (2000): *Ikasbilberri*, 2000/11/28: <<http://ikasbilberri.ikasbil.eus/web/ikasbil/>>.